



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Fruizko Udala

Euskara ikasteko eta prestatzeko ikastaroak egiteko diru-laguntzak, 2019-2020.

2020ko urriaren 13ko 123. zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, 2019-2020 ikasturtean euskara ikasketak eta ikastaroak egiteagatik dirulaguntzak emateko prozedura arautzeko oinarri bereziak eta deialdia onartu ziren.

Fruizen, 2020ko urriaren 13an. — Alkatea, Ane Legaretaetxebarria Aurtenetxe

**2020KO BERARIAZKO OINARRIAK ETA DEIALDIA****1. artikulua. — Diru-laguntzen xedea**

Arau hauen xedea da 2019-2020 ikasturtean euskara ikasketak eta ikastaroak egi-teagatik dirulaguntzak emateko prozedura arautzea.

2. artikulua. — Aurrekontu kreditua eta diru-laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntza hauek onartzeko dagoen kreditu erabilgarria 600,00 eurokoa da. Gastu guztia 2020ko ekitaldian indarrean dagoen aurrekontuaren 335.48103 partidaren kontura izango da. Kreditu uztartuen arteko soberakinak egotekotan edo hasieran aurreikusitako kreditua handitzekotan, banandu behar diren dirulaguntzen zenbatekoa proportzionalki handitu ahal izango da, baina ezin izango da inola ere laguntzaren gehienezko kopurua gainditi, 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. artikulua. — Onuradunak

Eskaera aurkeztu eta onuradun gauzatu ahal izango dira:

Fruizen errolatutako pertsonak (deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean eta aurreko 12 hilabetetan zehar etenik gabe), 2019-2020 ikasturtean euskara ikasketak edo ikastaroak egin dituztenak.

Ikasketa eta ikastaro horiek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- HABE-k homologaturiko euskaltegi publiko zein pribatuetan egindako ikastaroak
- Diruz lagundu ahal izango dira bai urte osoko ikastaroak (2019ko urritik 2020ko ekainera), bai eta 2020ko uztailan, abuztuan eta irailean egindako ikastaro trinkoak eta barnetegiak. Barnetegi kasuan matrikula gastuak baino ez dira diruz lagunduko eta inola ere ez estantzia, garraio eta bestelako gastuak.
- Ez dira diruz lagunduko ikastetxeek edo horko G.E.-k eskolaz kanpoko jardue-ra gisa antolatutako euskara ikastaroak. Edonola ere, ezin izango dira onuradun gauzatu, azaroaren 17ko 33/2003 Diru-laguntzen Lege Orokarren 13.2 artikuluan zehazten diren egoeran dauden pertsonak, diru-laguntzaren izaeragatik arau beziren bitartez salbuespena zehazten denean izan ezik.

Erroldatzearen baldintza ofizioz egiaztatuko da.

4. artikulua. — Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Eskabideak aurkezteko epea deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta 2020ko azaroaren 15an bukatuko da. Eskabideak, Aldai auzoko 5. zenbakian dagoen Fruizko Udal Erregistroan aurkeztu daitezke, eta horretarako 1. Eranskinean agertzen den eskabide eredu erabiliko da. Horrez gain, eskabideak urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen gainontzeko bideen bitartez ere aurkeztu ahal izango dira.

2. Eskabidearekin batera ondoko dokumentazioa aurkeztu behar da:

- a) Eskatzailearen eta, bidezkoa balitz, ordezkariaren NANaren fotokopia, bai eta agindutako ordezkapenaren frogagiria. Eskatzailea adin txikikoa bada, eskaera gurasoren bat edo tutoreak egin beharko du, familia-liburua aurkeztuz.
- b) 2. artikuluan aipatzen diren dirulaguntzak jasotzeko ezintasun baldintzetan edo egoeran ez egotearen ardurapeko adierazpena (eredu ofizialaren arabera).
- c) Zerga eta Gizarte Segurantzaren betebeharretan egunean egotearen egiaztagiria. Hala ere, eskatzaileak ziurtagiri horiek aurkeztu beharrean, xede berberarako ardurapeko adierazpena aurkeztu ahal izango du (eredu ofizialaren arabera), uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 24.4 artikuluekin bat etorriz.
- d) Xede berbera finantzatzeko asmoz beste erakunde edo erakunde batzuetan aurkeztu edo aurkeztuko den bestelako eskabideri buruzko zinpeko adierazpena. Adierazpen horretan zein erakundeari eskatu eta eskatu nahiz jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazi beharko da (eredu ofizialaren arabera).



- e) Ikaslea ikasten aritu den euskaltegiak edo HABE-k homologatutako ikastegi bakoitzak egindako ziurtagiria, ondoko hauek zehaztuz:
- Matrikula gisa ordaindu den/diren zenbatekoa/k.
 - Ikaslea eskolaratu den orduen portzentajea. Euskaltegiak ikastaro horretan emandako orduak eta ikasleak jasotakoak zehaztuko dira.
 - Egindako matrikula eta jasotako eskolak zer epealdiari dagokio zehaztuko da, hasiera eta amaiera datak zehaztuz.
 - Epe horretan egindako maila edo mailak, eta horiek gainditu diren ala ez esanez. Eskaera egiteko agiria eta artikulua honetan eskatzen diren gainontzeko eredu ofizialak Fruizko Udaleko webgunean egongo dira eskuragarri (<http://www.fruiz.eus>), bai eta udal bulegoetan ere.
 - Aurkeztutako eskabide edo dokumentazioan akatsak edo hutsunerik egotekotan, edo konpon daitekeen bestelako errurik egotekotan, eskatzaileari jakinarazpena igorri eta bost laneguneko epea emango zaio hutsak zuzendu edo arazoa konpontzeko behar diren agiriak aurkez ditzaten. Epealdi horretan gorabeherak zuzentzen ez badira, interesdunak dirulaguntzari uko egin diola joko da eta ez da aintzat hartuko.

5. artikulua. — Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko eta emateko irizpideak

2020ko ekitaldirako Aurrekontua Gauzatzeko Arauan jasotakoarekin bat etorritik, diru-laguntzen zenbatekoa hurrengo arauen arabera zehaztuko da:

- a) Onuradun bakoitzak jaso ahal izango duen gehienezko kopurua 150 eurokoa izango da. Onartutako kreditua egindako eskabide guztiei aurre egiteko behar adina izan ezean, organo emaleak erabilgarria den zenbateko osoa onartutako eskabide guztien artean banatzea erabaki ahal izango du.
- b) Onuradun bakoitzaren diru-laguntzaren kopuru zehatza ondoko arauen arabera kalkulatu da, beti ere aurreko paragrafoan adierazitako gehienezko kopurua errespetatuz:
- %80 edo gehiagoko asistentziagatik, matrikularen %50ekin diruz lagunduko da (150 euro gehienez).

6. artikulua. — Instrukzioa eta ebazpena

Emate prozedura norgehiagokako lehiakoa izango da. Prozedura ebazteko organo ahalduna Alkatetza da Udal idazkaritzak instrukzio prozedura garatuko du. Prozedura amaitu, ebatzi eta jakinarazteko epea ez da sei hilabetekoa baino luzeagoa izango. Behar moduko ebazpen jakinarazpena jaso gabe epe hau igarotzekotan, administrazio-isiltasunaren bitartez, eskabideari uko egin zaiola ulertzeko eskubidea du interesdunak. Prozeduraren ebazpena urriaren 1eko 39/2015 legearen 40. eta ondorengo artikuluek xedatzen dutenaren arabera jakinaraziko da. Emandako ebazpenak administrazio bideari amaiera ematen dio eta horren kontra; Udal honen alkatearen aurrean aukerako berraztertze helegitea aurkeztu ahal izango da, edo zuzenean txandaren arabera egokia den Bilboko Administrazio auzitegiaren aurrean Administrazio auzi-bidezko errekurtsioa ere aurkez daiteke. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluek xedatzen dutenarekin eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 legearekin bat eginez.

7. artikulua. — Beste dirulaguntza batzuekin bateragarritasuna

Xede berbera duten beste dirulaguntza batzuk jaso daitezke baina horren ondorioz ezingo da inolaz ere 5. artikuluan zehazten den gehienezko diru-laguntza kopurua gainditu. Horrelakorik gertatzekotan eman beharreko zenbatekoa gutxitu egingo da edo soberan emandako kopuruak itzuli behar izango dira, kasu bakoitzean bidezkoa denaren arabera.



8. artikulua.—*Dirulaguntzak ordaintzea*

Deialdiaren prozedura ebatzi eta interesdunei behar moduko jakinarazpena egin ondoren, onartutako zenbatekoak ordainduko dira hilabeteko epean gehienez, eta erregelamenduko izapideak bete eta gero.



I. ERANSKINA / ANEXO I

**2020KO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA
SOLICITUD PARA TOMAR PARTE EN LA CONVOCATORIA 2020**

Eskatzailea / Solicitante	NAN edo Pasaporte (H.I.) / DNI o Pasaporte (T.I.P.)	Abizenak / Apellidos		Izena / Nombre
	GAUR EGUNGO egoitza / domicilio actual			Jaioteguna / Fecha de nacimiento
	Udalerría / Municipio	P.K. / C.P.	Herrialdea / Provincia	Nazionalitatea / Nacionalidad
	Telefonoa / Teléfono	Posta elektronikoa / Correo electrónico		
	En representación de: _____			

ALKATE ANDREA / SRA.ALCALDESA	
Sinatzaileak, berekiko zehaztasunak azalduz, zera eskatzen du: / El firmante, cuyos datos se indican, solicita:	
Banketxea (dirulaguntza sartzeko): / Entidad bancaria para ingreso de la subvención:	
E	S

Ikastaroa / Curso	Maila / Nivel	Euskaltegiaren izena / Nombre del euskaltegi
	Ordaindutako izen-ematearen zenbatekoa Cuantía de matrícula abonada	Iraupena / Duración (ordu kopurua / horas lectivas)
	Helburu berarako eskaturiko diru-laguntza Subvención solicitada para el mismo fin	Helburu berarako eskaturiko dirulaguntzaren zenbatekoa Importe de la subvención solicitada para el mismo fin

Aurkeztu beharreko dokumentazioa / Documentación a presentar

- 1) Eskatzailearen eta, bidezkoa balitz, ordezkariaren NANaren fotokopia.
Fotocopia del DNI del solicitante y, en su caso, de la persona firmante de la solicitud.
- 2) Ikaslea ikasten aritu den euskaltegiak edo HABE-k homologatutako ikastegi bakoitzak egindako ziurtagiria.
Certificado de cada uno de los Euskaltegis o centros homologados por HABE en los que se hayan cursado los estudios.
- 3) Oinarri berezietan aipatutako zinpeko aitormenak/ Declaraciones juradas especificadas en las bases específicas.

Fruizen, 2020ko(a)ren ...(e)(a)n / En Fruiz, ... de de 2020.

Interesatuaren sinadura / Firma del interesado



AITORPEN ARDURATSUA / DECLARACIÓN RESPONSABLE

Onuraduna (erakundea-pertsona) / Beneficiario/a (entidad-persona)

Izena edo izen abizenak / Nombre o nombre y apellidos	NAN-IFZ-IFK / DNI-NIF-CIF	
Helbidea / Domicilio		
Herria / Población	PK / CP	Probintzia / Provincia

Diru-laguntza / Subvención

Diruz lagundutako aktibitatea / Actividad subvencionada
Diru-laguntzaren zenbatekoa / Importe de la subvención

Hau sinatzen duenak -datuak goian- diru-laguntzak emateko eskumena duen organoaren aurrean eta BERE ARDURAPEAN, HAUXE AITORTZEN DU:

1. Egunean dituela indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren aurrean dituenak; baita Fruizko udalarekin dituen zerga-betebehar guztiak ere.
2. Ez duela inongo zorrik diru-laguntzak itzuli behar izateagatik.
3. Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren 13.2. artikulua onuradun izateko aurreikusitako debekuren batean ere ez dagoela sartuta.

Eta horrela jasota gera dadin eta bidezkoak diren ondorioak sor ditzan, aitortpen hau izenpetzen du.

El/la firmante, cuyos datos se indican, DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD ante el órgano competente para la concesión de subvenciones:

1. Que se encuentra al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, así como de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Fruiz.
2. Que no tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.
3. Que NO se halla incurso en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiario/a previstas en el artículo 13.2 de la Ley General de Subvenciones.

Y para que conste y surta los efectos oportunos, firma la presente declaración responsable.

Fruizen, 2020ko(a)ren ...(e)(a)n / En Fruiz, ... de de 2020.

Interesatuaren sinadura / Firma del interesado